

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2011-2012ko LHko eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko sari berezien deialdia egin du

*Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 2an amaituko da*

Lunes, 18 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak astearte honetan, martxoak 19, 2011-2012 ikasturteari dagokion Lanbide Heziketako (LH) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko sari berezietarako eskaerak aurkezteko epea zabalduko du

[Deialdiaren oinarriek](#) jasotzen dutenez, astelehen honetan, martxoak 18, Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO), 53. zk., argitaratuak, sari horietara aurkeztu ahalko dira 2011-2012 ikasturtean zehar Foru Komunitateko zentro publiko eta kontzertatuetan LHko edo Arte Plastikoetako nahiz Diseinuko ikasketak amaitu dituzten ikasleak, eta 8,5 puntuko edo puntuazio handiagoko kalifikazioa dutenak.



Automobilgintza-tailerra Donapea lanbide-heziketarako ikastetxean.

Familia profesional bakoitzeko sari berezi bat emango da Lanbide Heziketako gradu ertaineko eta goi-graduako prestakuntza-zikloetan, eta sari bat gradu ertaineko arte plastikoetako nahiz diseinuko zikloetarako eta beste bat goi-graduakoetarako. Mailaren bat hutsik geratuz gero, beste familia profesional bateko hautagai bati eman ahalko zaio hautaketa-batzordeak hala proposatzen badu.

Sariak emateko ikasketa-espeditentearen batez besteko nota kontuan hartuko da eta, berdinketa badago, beste merezimendu batzuei emandako puntuazioa, esaterako: hizkuntzen ezagutza, atzerrian izandako prestakuntza-egonaldiak, titulazioari eta beste prestakuntza batzuei lotutako berariazko prestakuntza. Horretarako, hautagaiek Europako eredu curriculum vitae-a eman ahalko dute, eskaerekin eta ikasketa-espeditentearekin batera.

Sarituek Nafarroako Gobernuaren aintzatespen ofiziala jasoko dute eta egiaztatzeko diploma. Halaber, haien ikasketa-espeditentetan saria lortu izanaren ziurtagiria jarriko da. Goi-graduako LHri dagokion saria lortzen duten ikasleek maila horretako Estatuko sarira aurkeztu ahalko dira, gainera, aurrez izena eman ondoren.

Eskaerak [Nafarroako Gobernuko edozein erregistrotan](#) aurkeztu beharko dira edo [30/1992 Legearen, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta eta Administrazio Prozedura Erkideari](#) buruzkoaren, 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bulegotan, bai eta Internetez ere [Nafarroako Gobernuko zerbitzuen katalogoan](#).